

URRUNERA IHES EGINGO NUKE


Ventisquero colgante



Queulat- Chileko parke nazionalean kokatuta dago, zehazki:

- Kontinentea: Amerika (Hego-amerika)
- Herrialdea: Chile
- Eskualdea: Aysén
- Probintzia: Aysén
- Komuna: Cisnes


Erliebea, argazki honetan ikusi ahal dugun bezala v formakoa d. Eragile




geologikoak bat baino gehiago aurkitu ahal ditugu, bigarren argazki honek erakusten digun bezala alde batetik glaziarrek, eta gero, ur jauzian... glaziar mihiak.

Paisaia honetan pare bat prozesu aurkitzen dira, adibidez:

- higidura (gorriz)
- garraioa (urdinez)



Landaretza ugari dago parkean, goiko zatiak “coigüe de Magallanes” basoaz estalita daude batez ere.



Hemen, fiordoak, ibaien isuri azkarrak eta glaziarrek ikusteko aukera dago.

Ingurua, hezea eta iluna da, honek onddo, iratze eta goroldio ugari garatzeko aukera ematen du. Zuhaitz ikusgarrien artean, Laritzak, planetatik gehien bizi izan

den zuhaitz espezieetako bat ikus daiteke.

Parkeko animalien populazioa hegazti mota ugaritan kontzentratzen da, batez

ere uretakoen artean. Aintziratan lepo beltzezko zisneak ikus daitezke. Baso aldera dortokak ikusten dira.

Eta ikusgarriena Ur jauzia. 400 metro baino gehiagoko altueran, izotz masak ur-jauzi handi bat erortzen uzten du. Munduko ur-jauzirik ikusgarrien artean dago, horregatik urtero milaka bisitari erakartzen ditu. Ikuspegi hau venstisquero-tik 1 km-ra dagoen ikuspuntuari dagokio.

